

Zein da desenpleguaren jatorria? Derrigorrez egon behar da edo ezabatu daiteke?

Galdera hauek erantzutea edo behintzat analisirako faktore berri batzuk mahai gaineratu nahi ditugu, klasean jasotzen ditugun edukiak zalantzan jarriko dituztenak.

Klasean jasotzen dugun teoria makroekonomikoak 30.hamarkadako Depresio Handiak eragindako nahastean du jatorria.

Teoria ekonomiko dominanteak kapitalismoaren efizientzia, autoerregulazioan eta automatikoki nahi duenari enplegua emateko gaitasuna zuela aldarrikatzen zuen. Bitartean, errealitateak desenplegu handiko eta miseria sakonean murgildutako egoera bat islatzen zuen, teoria ekonomikotik oso urrun zegoena.

Testuinguru honetan agertu zen Keynesen teoria orokorra, desenplegu iraunkorra hobeto azaltzeko eta irtenbide bat aurkitzeko gai zela uste zena. 50 urtetan herrialde kapitalistetan nagusitu ziren politikak izan ziren. Eskari agregatuaren aldagai exogenoak(gastu publikoa, interes tasa edo ganbio tasa adibidez) bultzatuta produkzioaren eta enpleguaren handitze bat bilatzen zen. Honek errenten hazkunde bat eragiten zuen, kontsumoa bultzatzen zuena. Prozesu honek enplegu eta produkzioaren gain efektu biderkatzaile bat lortzea zen helburu. Keynesiarrek desenplegua erregulatu gabeko ekonomia kapitalistaren ezaugarri bat zela pentsatzen zuten, defizit fiskalaren erabilera arduratsu batekin estatuak enplegu maila handitu eta enplegu osotik gertu egongo zen maila bat lortuko zutela uste zutelarik.

Marko teoriko honek 3 desenplegu mota bereizten ditu:

1) Frikzionala: Langileek eta enpresek denbora behar dute langile eta lanpostuak elkartzeko eta denbora tarte motz (normalean) horrek desenplegua eragiten duela defendatzen da. Honek ez du ekonomiaren arazo estrukturalekin zerikusirik eta produktiboa dela esaten da, giza baliabideen erabilera egokia sustatzen duelako (langile bakoitzak bere postu egokiena aurkitzea hain zuzen ere, produktiboagoa izatea ahalbidetuko duena)

-Ikuspegi hau azaltzeko enplegu bilaketaren eredia proposatzen da. Honek errealitatetik asko aldentzen diren hainbat suposizio egin ostean azalpen egoki bat emateko gai dela defendatzen dute.

2) Ziklikoa: Honek eskari nahikoa egoten ez denean agertzen dela adierazten du. Ziklo ekonomikoaren atzerapen fasean agertzen da¹. Fase honetan enpresak eskari agregatu txiki baten aurrean daude eta ondorioz produkzioa gutxitzen dute, langileak kaleratzen dituztelarik.

3) Desenplegu estrukturala: Libre dauden lanpostuen eta langileen arteko desdoitzea eragiten du, eta hau bi motatakoa izan daiteke:

-**Gaitasun** ezberdinak eraginda, langileen gaitasunak ez dira enpresariak behar dituzten lanpostuak asetzeko gai.

-**Geografiak** eraginda, baliteke lanpostuaren eta langilearen gaitasunak egokiak izatea baina hau ez egotea toki berdinean edo gertu batean.

¹ Ziklo ekonomikoaren azalpen sakonago baterako begiratu EKTK krisien inguruan idatzitako testua

Ikuspegi honek argi uzten du sistema kapitalista ez dela desenplegua ezabatzeko gai, bere funtzionamenduari berezko zaiolako. Horregatik desenplegua nahitaez egon behar den zerbait bezala azaltzen dute eta hor agertzen da desenpleguaren tasa “*naturala*”.

Teoria honen ustez desenplegu tasa hau epe luzeko ekonomian dagoena da, enplegu osoko egoera batean dagoen ekonomia hain zuzen ere. Hau langileen sarrera eta irteeren fluxu iraunkorren ondorio dela azaltzen du.

Horrela langabetuak egotea naturalizatzen saiatzen dira, sistemaren aldaezintasuna indartuz.

Ikuspegi honen mugak ikusita beste ikuspegi bat ematen saiatuko gara.

Hor agertzen da industria erreserba ejertzitua (IEE), lana lortzeko presionatzen duen desenplegu masa definitzen duen kontzeptua. Kontzeptu honetatik gelditzen da sistemak berak kanporatu duen zatia (indigenteak) edo lana aurkitzeko itxaropena galdu duen pertsona multzoa. Kontzeptu honek hurrengo ezaugarriak ditu:

- 1) Sistemari berezko zaiola, nahiz eta batzuetan langabetu masa hau txikia izan krisi ekonomikoek, mekanizazio mailaren handitzea edo kapitalaren internazionalizazioak masa hau erraz handitu dezake.
- 2) Ziklo kapitalistan soldaten erregulazio funtzioa jokatzeko duela ikusi dezakegu. Hala ere ezin daiteke faktore nagusia bezala hartu, hori produkzio bitartekoen jabetza delako. Horregatik langile klasea bere lan indarra saltzera behartua dago eta langabe masa handiak lan eskaria handitzen duenez soldatak jaitea eragiten du (jendearen beharraz aprobetxatzen dira eta bere burua soldata baxuago bategatik saltzera behartu daudelako biziraun ahal izateko)
- 3) Ezin dugu ahaztu IEEk lan egiteko prest dagoen masa bat adierazten duela, hedatze fase baten sartzean, kapitalistek behar duten lan esku multzo bat edukiko dutelarik.
- 4) Azkenik, IEEk duen menperatze funtzioa nabarmendu beharra dago. Langile klasea kapitalaren logikara estuago lotzeko gaitasuna duelako, bizirauteko sistemaren beharra handitzen du

Amaitzeko datu batzuk aztertuko ditugu, ikuspegi kritikoaren beharra ezinbestean nabarmendu behar dugularik. Ezin gara azaleko kritiketan gelditu eta prozesu ekonomikoaren muinera jo behar dugu.

OITren(Lanaren nazioarteko erakunde) arabera 2013.urtean munduko desenplegu tasa %6 batekoa zen. Honek 202 milioi pertsonak(horietatik ia 75 gazteak) desenplegatuak daudela adierazten du. Ezin dugu ahaztu lan partzialak edo ordu gutxikoak enplegatu bezala hartzen direla eta lana aurkitzeko itxaropena galdu(2008ko krisitik 23 milioi pertsonak) dutenak estadistika hauetatik kanpo daudela. Beraz, benetako desenplegu tasa estadistikek adierazten duena baino altuagoa dela ikusi dezakegu.

Mainstream ekonomian desenplegua zerbait logiko eta natural bezala hartzen da, azaldu bezala sistemaren funtzionamendu egokiago bat ahalbidetzen duelako. Honen barnean poskeynesiarren kontraesan maila azalatu nahiko genuke, beraien ustez kapitalistek desenplegatu maila bat mantendu behar dute. lan disziplina eta soldatak mantentzeko. Hau da, Industria Erreserba Ejertzioaren existentzia onartzen dutela baino aldeberean, enplegu osoa lortu ahal dela uste dute.

Horregatik kritika marxista behar dugu, desenpleguaren atzean produkzio bitartekoan jabetza pribatua dagoelako. Kapitalaren erlazioa zalantzan jartzen ez den bitartean desenplegua egoten jarraituko du. Honekin amaitu nahi badugu ezin dugu erreformismorako tarterik utzi eta sistema errotik aldatu behar dugu.

Bibliografia

-Sobre salario, desempleo e inflación Rolando Astarita

http://www.matxingunea.org/media/html/astarita_sobre_salario_desempleo_e_inflacion.html#d5e163

-La explicación de la inflación y el desempleo: una alternativa a la teoría económica neoliberal Anwar Shaikh

<https://marxismocritico.com/2011/10/09/la-explicacion-de-la-inflacion-y-el-desempleo/>

-Mandel, E. (1968): *La formación del pensamiento económico de Marx, de 1843 a la redacción de El Capital: estudio genético*, México, Siglo XXI.

-Mandel, E. (1969): *Tratado de economía marxista*, México, Era.

-Rosdolsky, R. (1978): *Génesis y estructura de El Capital de Marx*, México, Siglo XXI.

-Marx, K. (1865): «Salario, precio y ganancia»

<http://www.matxingunea.org/dokumentua/salario-precio-y-ganancia/>